**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**GIZARTE EKINTZA**
gizartekintza@pasaia.net

*1. artikulua. Helburua.*

Araudi honen helburua da ur-hornidura, saneamendua eta hondakin-bilketako tasak ordaintzeko diru-laguntzak arautzea. Diru-laguntza jasoko dute ondorengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten bizikidetza-unitateen titularrek.

*2. artikulua. Onuradun izateko baldintzak:*

1. Diru-laguntzaren onuradun izan daitezke bizikidetza-unitate baten kide diren erabiltzaileak, baldin eta bizikidetza-unitate horren diru-sarrerek, kide guztienak zenbatuta, ez badituzte araudi honetan ezarritako mugak gainditzen, eta ez badute gizarte-beharrizan larrietarako laguntzarik eskatu kontzeptu beragatik.

2. Bizikidetza-unitatearen kide kopurua zehazteko (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9. artikulua), kontuan hartuko dira ekitaldi honetako urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldan ageri diren datuak, eskatzailea erroldatuta dagoen etxebizitzari buruzko datuak, hain zuzen ere.

Errolda egin ondoren izan diren aldaketak banan-banan aztertuko dira.

3. Bizikidetza-unitatearen kide guztiek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Diru-laguntzari atxiki zaion etxebizitzaz aparte, beste etxebizitzarik jabetzan ez izatea; etxebizitzaren eraikin berean dagoen

*Artículo 1. Objeto.*

Es objeto de la presente normativa la regulación de la concesión de subvenciones para el pago de tasas por suministro domiciliario de agua, saneamiento y recogida de residuos a las usuarias integrantes de las unidades de convivencia que cumplan las condiciones que se establecen en los siguientes artículos.

*Artículo 2. Requisitos para obtener la condición de persona beneficiaria.*

1. Podrán adquirir la condición de beneficiarias aquellas usuarias que formen parte de una unidad de convivencia cuyos ingresos, incluyendo todos los que puedan obtener las integrantes del mismo, no excedan los límites que se determinan en esta normativa, y que no sean beneficiarias de ayudas de emergencia social por el mismo concepto.

2. A los efectos de la determinación del número de componentes de la unidad de convivencia (art. 9 de la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, para la garantía de ingresos y para la inclusión social), se tomará en consideración la información obrante en el Padrón Municipal de Habitantes al 1 de enero del ejercicio en curso, referida a la vivienda en la que deberá constar empadronada la solicitante.
Las variaciones producidas con posterioridad a la confección del censo, serán objeto de análisis individual.

3. Todas las personas integrantes de la unidad de convivencia de la solicitante deberán reunir los siguientes requisitos:

- No ser propietarias de otro bien inmueble distinto de aquél para el que se solicita la subvención, excluyéndose de este cómputo

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net

trastelekua kontuan hartu gabe.

- Pasaiako Udalarekin inolako zorrik ez izatea exekuzio-aldian. Nolanahi ere, zerga-betebeharrak egunean dituztela joko da, haien zorra Kudeaketa eta Diru-bilketaren Ordenantza Orokorraren arabera zatikatuta badago, eta zatikatutako kuota horiek dagokienean ordaintzen ari badira.

*3. artikulua. Diru-laguntzak zehazteko irizpideak.*

1. Bizikidetza-unitatearen baliabideak zehazteko, eskatzailearen eta aipatu unitateko gainerako pertsonen baliabide guztiak konputatuko dira, hau da, etekinak nahiz ondarea.

2. Bizikidetza-unitate bakoitzerako kontuan izango diren gehienezko diru-sarrerak kalkulatuko dira, ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen LAGSaren arabera. Eta horri honako indize zuzentzaile hauek aplikatuko zaizkio:
- Kide batentzat 1,10
- 2 kiderentzat 1,20
- 3 kiderentzat 1,30
- 4 kiderentzat 1,40
- 5 kiderentzat 1,50
- 5 kidetik gorako unitateentzat: 0,10 gehiago kide bakoitzeko.

3. Eskatzailearen bizikidetza-unitatearen urteko diru-sarrerak kalkulatutako mugaren erdira iristen ez badira, tasen % 75eko diru-laguntza proposatuko da; mugaren erditik gorako diru-sarrerak baditu, % 50eko diru-laguntza proposatuko da.

el local destinado a trastero que se encuentre ubicado en el mismo edificio de la vivienda objeto de la solicitud.

- No tener deudas con el Ayuntamiento de Pasaia, por ningún concepto, en período ejecutivo. En todo caso, se considerará que se encuentran al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias si su deuda está fraccionada con arreglo a la Ordenanza General de Gestión y Recaudación, y si están abonando regularmente las cuotas fraccionadas.

*Artículo 3. Criterios para la determinación de las subvenciones.*

1. Para la determinación de los recursos de la unidad de convivencia, se computará el conjunto de recursos, tanto los rendimientos como el patrimonio, de la persona solicitante y de las demás personas miembros de la unidad familiar

2. Para el cálculo del límite máximo de los ingresos económicos que se tomarán en consideración para cada unidad de convivencia, se tendrá como referencia el S.M.I. vigente en cada ejercicio, al que se aplicarán los índices correctores siguientes:
—Para 1 persona 1,10.
—Para 2 personas 1,20.
—Para 3 personas 1,30.
—Para 4 personas 1,40.
—Para 5 personas 1,50.
—Para más de 5 personas un 0,10 más por persona.

3. Para las solicitantes cuyos ingresos anuales en la unidad de convivencia no lleguen a la mitad del límite así calculado, se propondrá una subvención del 75% sobre el importe estimado de las tasas; para las que obtengan entre la mitad y el límite máximo de cada tramo, se propondrá la subvención del 50%.

4. Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako tasa hauen urteko fakturazioaren aurreikuspena egingo da:
- Etxebizitzetako hondakin-bilketari dagokion tasa.
- Ur-hornidura zerbitzuaren kuota finkoak (BEZ kenduta).
- Aurreikusitako kontsumoaren fakturazioa: pertsona eta urteko 45 metro kubiko (BEZ kenduta).
- Saneamendua.

4. El importe estimado de las tasas sobre el que se calculará la subvención incluirá la previsión de facturación anual por los siguientes conceptos:
- Tasa de recogida de residuos a viviendas.
- Cuotas fijas de servicio de suministro de agua (excluido el IVA correspondiente).
- Facturación de consumo estimado, a razón de 45 metros cúbicos por persona/año (excluido el IVA correspondiente).
- Saneamiento.

5. Etxebizitza bererako eskaera bat baino gehiago aurkezten bada, kalkulatutako diru-laguntzaren zenbatekoa proportzionalki banatuko da, eskaera aurkezten duen bizikidetza-unitate bakoitzeko kideen arabera.

5. En el supuesto de concurrencia de varias unidades de convivencia en una misma vivienda, el importe de la subvención calculada se prorrateará con arreglo al número de componentes de cada unidad de convivencia.

6. Proposatutako diru-laguntzen guztizkoak udal aurrekontuan izendatutako kopurua gainditzen badu, diru-laguntzak proportzionalki banatuko dira, diru-izendapen horren muga kontuan izanik.

6. Cuando el importe total de las subvenciones propuestas exceda del consignado en el presupuesto municipal, se prorratearán hasta el límite del mismo.

*4. artikulua. Diru-laguntza eskaerak izapidetzeko prozedura.*

*Artículo 4. Procedimiento para la tramitación de las solicitudes de subvención.*

1. Eskaera-orriak aurkezteko epea urtero-urtero jakinaraziko da ohiko publizitate bideen bitartez. Ez da izango epea luzatzeko aukerarik, epe horretan gaixorik edo ospitaleratuta egon dela behar bezala justifikatzen ez bada.

1. El plazo para la presentación de instancias se dará a conocer cada año por los medios de publicidad habituales, sin posibilidad de prórroga, excepto para casos de enfermedad o internamiento en centro hospitalario durante dicho plazo y siempre que esta circunstancia se justifique debidamente.

2. Diru-laguntza jasotzeko eskubidea dutela pentsatzen duten erabiltzaileek eskaera aurkeztu behar dute Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoetan, edo administrazio prozedura erkidea arautzen duen legedian agiriak aurkeztea ahalbidetzen den edozein lekutan, jabearen izena eta bi abizen adieraziz, baita diru-laguntza jasotzeko kontuaren zenbakia ere (20 digitu), honako agiri hauekin batera, bizikidetza-unitatea

2. Aquellas usuarias que consideren pueden tener derecho a la subvención, deberán presentar su solicitud en el Servicio de Atención al Ciudadano de este Ayuntamiento, o en cualquiera de los lugares donde se permite la presentación de documentos en la legislación del procedimiento administrativo común, indicando nombre y dos apellidos de la propietaria, número de cuenta (20 dígitos)

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

GIZARTE EKINTZA
gizartekintza@pasaia.net

osatzen duten guztiei dagozkienak:

1. NAN fotokopia
2. Lanerako adinean daudenek:
   - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako lan-bizitzaren ziurtagiria
   - urtean zehar lanean aritu bada, azkeneko 3 nominak
   - Enpleguko Institutu Nazionalak prestazio ekonomikoren baten bidez lortutako irabazien ziurtagiria edo, bestela, irabazirik ezarena.
3. Pentsio eta/edo prestazio ekonomikoren baten bidez lortutako irabazien Gizarte Segurantzako ziurtagiria, edo bestela, irabazirik ezarenaz.

Eskatzaileak baimena ematen badio Pasaiako Udalari zuzenean Gipuzkoako Foru Aldunditik edo Lanbidetik 4 eta 5 puntuetako datuak jasotzeko ez da beharrezkoa izango aipatutako ziurtagiriak aurkeztea. Baimena eman ezean, honako zaiurtagiri hauek ekarri beharko ditu:

4. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ziurtagiria, zeinahi prestazio ekonomikoren bidez lortutako irabaziak egiaztatzen dituena edo, bestela, irabazirik ezarena.
5. Lanbideren ziurtagiria, diru-sarrerak bermatzeko errenta (oinarrizko errenta) bidez lortutako irabaziak egiaztatzen dituena, edo, bestela, irabazirik ezarena.

3. Gizarte Ekintza Sailean eskaerekin batera aurkeztutako agiriak egiaztatu eta baloratu ondoren, Diru-bilketa eta Errenta Sailean egiaztatuko dute eskaerek 2. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten; eta azkenik, diru-laguntzen zenbatekoak ordaintzeko proposamena egingo da, 3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

designado para el abono de la subvención y acompañando la siguiente documentación referida a todos los miembros de la unidad de convivencia:

1. Fotocopia del DNI.
2. Quienes estén en edad laboral:
   - Certificado de vida laboral expedido por el INSS
   - Si ha trabajado en el año, las 3 últimas nóminas
   - Certificado del INEM de los ingresos obtenidos por alguna prestación económica o negativo en su caso.

3. Certificado de la Seguridad Social de los ingresos obtenidos por algún tipo de pensión y/o prestación económica o negativo en su caso.

Si la persona solicitante autoriza al Ayuntamiento de Pasaia para que recabe directamente de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de Lanbide los datos de los puntos 4 y 5 siguientes, no será necesaria la aportación de estos certificados.
Si no autoriza el acceso, deberá aportar los siguientes certificados:

4. Certificado de la Diputación Foral de Gipuzkoa acreditativo de los ingresos obtenidos por algún tipo de prestación económica, o negativo en su caso.
5. Certificado de Lanbide de los ingresos obtenidos por prestación de la Renta de Garantía de Ingresos (renta básica), o negativo en su caso.

3. Tras la comprobación y valoración de la documentación correspondiente a cada solicitud en el Servicio de Acción Social, se efectuará en el  de Recaudación y Rentas la comprobación de que se cumplen los requisitos detallados en el art. 2 y se hará propuesta de abono de los importes resultantes según lo previsto en el art. 3.

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**GIZARTE EKINTZA**
gizartekintza@pasaia.net

4. Deialdiaren iragarkian bertan, diru-laguntzen ordainketa data ere zehaztuko da.

Azken xedapen bakarra.

Aldaketa hau Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoarekin bat sartuko da indarrean.

4. En el anuncio de la convocatoria se indicará asimismo la fecha de abono de las subvenciones.

Disposición final única.

La presente modificación entrará en vigor de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.